


Aia
Getaria
Orio
Zarautz
Lumaia



Argazkia: David de Llodio

UROLA KOSTA

EUS | EUSKARA

Eta murgil zaituz gure ohituren itsasoan

Turista

arduratsuaren
jarraibideak



01

Ezagutu gure kultura, hizkuntza eta ohiturak. Gozatu euskararekin eta euskaraz.

Agur egiteko, esan “kaixo”... eta eskerrak emateko esan “eskerrik asko”. Gure hiztegian, hitz erabilgarri eta erraz gehiago aurkituko dituzu.

02

Eman babesa tokiko merkataritzari.

Ibili gure kaleetan barrena eta erosi tokiko dendetan. Eskualdean bertan kontsumitzeak gure ekonomia indartzen du, eta turismo jasangarri bat lortzeko orekan laguntzen du. Gertuko tratu on bat eta bertako produktuak eskaini ohi dituzte merkataritxikiek; zure bisita bakarra eta benetakoa egiten lagunduko dute.



Familia-jardueraren ikonoa

03

Mugitu garraio publikoan.

Ahal dela mugitu garraio publikoan. Eskualdean barrena ibiltzeko autobus eta tren zerbitzua duzu. Zure egonaldia erosoagoa egingo dute, apartaku beharrik izan gabe. Aproposa zure irudimena paisaiari begira galtzeko, gidatzeaz kezkatu gabe.

04

Zaindu ingurumena.

Keinu txikiekin inguratzen gaituen tokia zaintzen laguntzen dugu. Gogoratu zaitez iturria ixteaz edo aire girotua nahiz berogailua itzaltzeaz, bereizi hondakinak eta errespetatu landa eremua! Gure eskualdean ingurumena errespetatzen dugu. Turismoaren garapen jasangarri eta arduratsuarekiko konpromisoa dauka Urola Kosta eskualdeak, eta herritarren eta bisitarien erabateko onura eta ongizatea bilatzen ditugu.



ERREALTATE AREAGOTUA

1



Deskargatu App-^o

2



Eskoneatu indie

3



Elkarr eragin, eta dibertitu



Egin ihes, eta gozatu gure kostaldeaz

Gozatu itsasoari lotutako inguruneaz eta bertako kulturaz.

Itsasoa bare egoten da batzuetan, baina, beste batzuetan, harkaitzen aurka esnatu eta eskualdeko eremu berderaino iritsi nahi izaten du, kostaldea indarrez kolpekatuz. Kultura itsasoari eta euskarari lotuta dago, Europako hizkuntza zaharrenari, hain zuzen ere. Gure eskualdeak, bere hizkuntzarekin, tradizioekin, manerekin eta bisitariekin, bete-betean harrapatuko zaitu. Murgil zaitez gure herrietako hizkuntza, kultura, ohitura, gastronomia eta tradizioetan.

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiak osatzen dute itsasoari lotuta dagoen eta Urola Kosta deritzon eskualdea.

Urola Kostak 43.672 biztanle ditu. Adinekoak nahiz txikienak, askotariko bizimodu, kultura eta tradizioekin, egiteko eta ekoizteko modu propioarekin. Eta horregatik gonbidatzen zaitugu gure kulturaz eta produktuez gozatzera.

Planifikatu Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiarako joan-etorria. Egin ihes gurera, une berezietan eta ametsezko paisaiekin gozatzera!

Lagun iezaguzu ingurune natural hau zaintzen. Eta egin iezaiozu zure ekarpena turismo arduratsu eta jasangarriaren garapenera.

01

Herriz herri

*ezagutu gure
5 herriak*

*bisitatu tokirik
xarmagarrienak*

Top 10

02

03

Gastronomia

*tokiko
produktu paregabeak*

*sentsazio
atseginak*

Natura

04

05

Kultura

ezagut gaitzazu

*antolatu
zure bisita*

Bisita gidatuak

Agenda

06

07

Planak

*aizialdiko
planak*

*nola
mugitu*

Mapa

08



Ezagutu
gure
5 herria



01

Herriz herri


k



Aiau

Atzera-aurrerak ahaztu nahi badituzu, Aian bertuko duzu

Aian naturako eta landa-bizitzako garaiak berreskuratuko dituzu. Baserriek edertutako paisaiak eta Pagoetako natura-parkeko freskotasunak lagunduko dizute horretan. Eta, zolarria duten etxeetako baserri-arkitekturaren benetakotasunaren erdian, pilotaleku urdin berezia agertuko zaizu, Oteizak goretsia. Horrexek ematen dio modernitate-ukitua Aiari. Ibil zaitetz bertako kaleetan, eta hitz egin herritarrekin, herrikoa senti zaitezen.



1. Galdu zaitetz Aian


Aia aproposa da lasaitasunaz eta paisaiatz gozatzeko, familia osoarentzat egokiak diren ibilaldi eta bidezidorren bidez. Gainera, Pagoetako parkearen barruan hainbat ibilbide daude seinaleztatuta, eta horiek % 100 naturala den ingurune bat erakutsiko dizute.

Instalazio ugari ditu herriak: palan edo pilotan jokatu ahal izateko pilotaleku profesionalak, futbol eta saskibaloian jokatzeke kirol kantxa bat, parkeak bere

auzo guztietan... Giro jendetsua bilatuz gero, Andatza auzoan egiten den erromeria, urteko igande guztietan (udan izan ezik), trikitiaren erritmora dantzatzeko leku ezin hobea da.

2. Bisitatu bertako gaztandegiak

Aiako enbaxadore gastronomikoa herriko gaztandegietan eros daitekeen gazta da. Bertan, ekoizleek baserrietako atea irekiko dizkizute.



Pagoetako natura-parkea

Iturraran baserria

20809 - Aia

Tel. 943 83 53 89

iturraran@gipuzkoamendizmendi.net

www.aiapagoeta.com

www.gipuzkoamendizmendi.net

3. Ezagutu Euskal Kultura

Aia euskal kulturaren erreferentea da, egunerokoan presente dago, bai euskarari esker baita ospatzen diren ekitaldiei esker ere, hala nola idiak arrastatzea, harriak altxatzea...

4. Aiako Ardiaren jokora jolastu

Gerturatu Aia-ra familian, bertako historia, kultura eta biztanleei buruz gehiago jakiteko, Aiako Ardiaren jokoaz gozatuz. Sartalde kaleko zoruan dagoen taula erraldoia zeharkatzen duzuen bitartean, parte-hartzaile guztiak parte

aktiboa izango zarete joko honetan, fitxen itxura eginez. Haurrek zein helduek paneletako argibideei jarraituz gozatu ahal izango duzue.

5. Egin ezazu bisita kultural bat Aian zure erara



Hartu zure denbora eta galdu zaitez Aiako kaleetan herriko historia eta eraikin enblematikoenak erakutsiko dizkizuten panel informatiboak jarraituz. Aparkalekuan dagoen lehen panela da hasiera, herriaren sarreran.

Getaria

Balentziagaren hari-orratzekin arretaz josia



Itsasoko haize leunak zipriztindutako txakolin-mahastien marrazkia, balea-ehizaren zelatan zeuden itsasontzien gordelekua eta Juan Sebastian Elkano nabigatzaile geldiezinaren sehaska. Horixe da, hein handi batean, Getaria.



1. Alde Zaharra eta Salbatore deunaren Eliza

Murgildu Getariako alde zaharrean, eraikin historikoen artean paseatuz, Getariako historia ezagutuz. Ez ahaztu Euskadiko gotiko garaiko altxorretako bat den Salbatore deunaren elizan sartzea edo duela 500 urte munduari lehen bira eman zion Juan Sebastian Elkanoren monumentua ikustea.



2. Ezagutu natura

San Anton mendia "Getariako arratoia" izenez ere ezaguna den natura parkea da eta itsasoari begira paseatzeko aukera eskaintzen du. Arrantzaleen portutik barrena joaten da bertara eta portuaren babes-

leku ere bada, itsasotik barrena datozen haize ufa bortitzetatik babesten duelako. Meaga, Eitzaga, San Prudentzio eta Askizu Getariako auzoak ezagutzeko aukera ere baduzu mahastien artetik barrena igarotzen diren ibilbideetakoren bat eginez. Gure hondartzez gozatu eta itsas kirolen bat egiteko aukera ere izango duzu, hala nola surf-a, piragua, bela edo urpekaritza.

3. Cristobal Balenciaga Museoa

Klasikoetako bat, moda munduko handietako bat da Cristobal Balenciaga getariarra. Maria Kristina Austriakoaren eta Viktoria Eugenia Battenbergekoaren mailako bezero



Getariako Turismo Bulegoa

Aldamar parkea, 2
20808 - Getaria
Tel. 943 14 09 57
infoturismo@getaria.eus
www.getariaturismo.eus

fin eta dotoreen jostuna izan zen eta Pariseko goi-mailako jostintzan mito bihurtu zen. Museoan sartu eta modaren historiako parte bilakatu diren jantzetan Cristobal Balenciagaren inspirazioa, berak egindako puntadak eta xehetasunak ezagutzeko aukera izango duzu.

4. Gastronomía

Gozatu Getariako gastronomiaren xarmaz bertako jatetxe, taberna, gastroteketan... Leku paregabea da, izaera propioa duena, eta zure bisitaldia esperientzia kultural, historiko eta gastronomiko errepikaezina izatea lortuko du lurreko eta itsasoko produktuak parrila erara dastatuz eta

txakolin paregabea den "Getariako Txakolinarekin" bustiz. Getariako txakolina fruta gustuko graduazio ertaineko eta garratzasun puntuko ardo zuria da, marisko eta arrain plateri laguntzeko ezinbestekoak. Eta gure gastronomiaren zati bat etxera eraman nahi izanez gero, gure arrain kontserbak probatu baino ez dituzu egin behar.

5. Merkataritza

Kale estuez osatutako gure herrian bizitako esperientziaren oroigarri bat etxera eramateko aukera izango duzu denda txikietan dituzten kalitatezko produktuekin.

Orio

Indarra, borondatea eta adorea

Horiexek dira kolore horiari, Orioko bereizgarriari, lotzen zaizkion ezaugarriak. Eta ez zaizkio asko aldentzen arrantzale-herri honen ibilbideari.

Jorge Oteiza eskultoreak bertan aurkitu zuen bere pentsamendu artistikorako eragina, eta Benito Lertxundi euskal kantautoreak bere hitzetarako inspirazioa topatu zuen.

Orioko traineruko arraunlariek indarrez hartzen dute abiada olatuen gainean, eta Kantauriko erlaitzeko txapelketetako buru jarri ditu horrek.

Bestalde, izaera handiko gastronomian aitzindari, Orio estilora egindako bisigua duzu zain, Ori aibaiaren ertzeko herri honetako jatetxeetan.



1. Bariko San Nikolas eliza

Arrokari moldatuta. Horrelaxe dago herriko monumenturik zaharrena, non lursailaren orografia malkartsuarekin batera bizi den XIII. eta XVII. mendeetako arkitektura. Askotariko zabalera eta diseinuak dauzkan arkupe luzeak erakutsiko dizu naturarekiko egokitzapen hori.

2. Goiko kalea, hirigune historikoa

Arrokaren purutasuna nonahikoa da XIII. mendeko hirigune historikoan. Ikusiko

duzunez, eremu honetako eraikuntza askoren oinarria da, haren gainean eraiki baitira eliza, etxebizitzak eta eskailera aldapatsua. Bertako kaleetan barrena zoazela, orografia malkartsua gainditzeko hainbat bide ezagutuko dituzu, hala nola eraikinak elkarlotzen dituzten egurrezko pasabideak eta harrizko galtzadak.

3. Tourseko San Martin ermita

Hirigune historikoaren goialdean duzu Tourseko San Martin ermita. Handik, hegaz



Orioko Turismo Bulegoa

Kale Nagusia, 17
20810 - Orio
Tel. 943 83 55 65
orioturismo@gmail.com
www.orio.eus

bezala ia, arrantzale-herri honen distira behatu ahalko duzu, non itsasontziak Orioko plazari berari amarratzen zaizkion.

4. Antilla hondartza

Orion bertan hondartza egun batez gozatzeko aukera ematen dizu Antilla hondartzak. Bestetik, pasieran ibiltzeko bideei ekin diezaiekezu Antillatik. Horietako bat da Itxaspekoa, euskal kostaldeko ñabardura aberatsez gozatzeko begiratkia duena.

5. Arraunetxe

Arraunaren hiriburua da Orio. Antzinako balea ehiztariak traineruetan irteten ziren arrantzara. Gaur egun, ontzi mota horiek erabiltzen dituzte oriotarrek, baina kirola egiteko. Arraunetxe arraunaren eta piraguismoaren teknifikazio zentroa da, punta-puntakoa. Azpiegitura hori erabiltzeko bisita gidatuak antolatzen ditu Begi Bistan enpresak.

Zarautz

*Bi kilometro eta
erdiko hondar
fineko hondartzan,
itsasoak Zarautz
besarkatzen du*

Euskadiko hondartzarik zabalena da. Bertan, hiria eta natura uztartuta dituzu: batetik, malekoia, aire zabaleko eskultura eta kafetegiekin; eta, bestetik, biotopo babestua, natura bere horretan. Euskadiko kostaldeko herri nagusietako bat da, eta bertako ondareak, merkataritzak, ur-kirolek, oinezkoentzako kaleek eta museoek etengabeko irakinaldian egon arazten dute.



1. Monumentu-multzoa

Zarautz 1237an sortu zen, hiribildu gisa. Duela gutxiko arkeologia-ikerketek erakutsi dutenez, K.o. IX. mendekoa da Zarautzko jatorrizko egonlekua. Beraz, 1.200 urteko historia dauka kokalekuak, eta Zarautzek bisitatzea merezi duen monumentu-multzoa edukitzea ekarri du horrek. 1994ko abuztuan, Eusko Jaurlaritzak kultura-ondare izendatu zuen Zarautzko hirigune historikoa, monumentu-multzoaren kategorian.


2. Museoak

Zarautzek tradizio artistiko oparoa dauka hainbat diziplinan; hala nola literaturan, musikan, argazkigintzan eta pinturan. Udal-erakusketetarako aretoek eta hiribilduko bi museoek erakusten dute ondare

historiko horren zati bat; adibidez, Photo-museum Argazki & Zinema museoak eta Andre Maria Erregina monumentu-multzo arkeologikoak. Hainbat gune arkitektoniko biltzen ditu azken horrek, eta adierazpen historiko, artistiko eta arkitektoniko interesgarriak aurki daitezke bertan.

3. Pintxotan

Pintxoak Euskadiko sinboloa dira, eta, Zarautzen, bete-beteko bizipen bihurtzen dira. "Pintxotan ibiltzea" esaten diogu. Taberna bakoitzak dituenak ikusi, dastatu, eta bizi ezazu tokiko giro aparta, giro horren zati zarea sentituz. Mokadu txiki bakoitzean erakusten da Zarautzko gastronomia, baina baita jatetxeetako mahaietan ere. Eta ezin dezakegu "Toldotxo" ahaztu,



Zarauzko Turismo Bulegoa

Kale Nagusia, 30
20800 - Zarautz
Tel. 943 83 09 90
turismoa@zarautz.eus
www.turismozarautz.eus

Udako informazio-gunea

Itsas pasealekua
Tel. 943 89 03 77

Zarauzko pintxoa. Argiñano familiak lagundu du itsaso- eta hondartza-zapore biziak dituen sorkuntza gozo-gozo horretan.

4. Erosketatan

Dendetan ere islatzen da Zarauzko bizi-filosofia, xehetasunak, arreta pertsonalizuatuak eta produktuaren kalitateak agintzen baitute horietan. Hiri-erdiguneak merkataritza espezializatu eta kalitate handikoa hartzen du. Eskaintza erakargarri eta askotarikoa eratzen dute moda-, kirol- eta dekorazio-dendek. Zarautzen, bestelako kutsua dauka erosketatan ibiltzeak, plazera ematen baitu eraikin bereziz eta pieza bakanak topatzeko denez josiriko kale ederretan pasieran ibiltzeak.

5. Kirola Zarautzen

Zarauzko beti izan da kirolzalea. Kirola egiteko modu eta aukera ugari daude, askotarikoak. Zarauzko olatuen kalitatea hain da handia, ezen hiribilduan egiten baita mundu-mailako surf-zirkuituaren probetako bat, unean-uneko surfleri onenak elkartuz bertan. Golf bikaina dauka, duna gainean eta itsaso ondoan, itsasoaren eta paduraren arteko ingurune natural eder batean. Zarauzko Nazioarteko Triatloia egiten da, bai eta Getariaren eta Zarautzen arteko igeri-zeharkaldia, abuztu erdialdeko traineru-estropadak, hondar-tzako futbol-txapelketa, kros mistoa eta abar egin ere.

Zumaia

Berezieneren uzta da gaurko Zumaia

Asko dira kostaldeko herri honen nortasun berezia eraikitzen lagundu duten gizon eta emakumeak: Ignazio Zuloaga margolaria (Zumaian kokatu zuen behin betiko estudioa), Baltasar Etxabe eta Julene Azpeitia idazleak, Julio Beobide eskultorea, Yeregui anaia argiak (estatuko lehenengo diesel motorra egin zutenak), beren arrastoa utzi dute, eta nortasun nabarmenez hornitu kostaldeko udalerrri hau.

Bertako geografia bitxian ere islatzen da nortasun hori, Euskal Kostaldeko Geoparkean, hain zuzen ere. 2010. urtean UNESCOren mundu-mailako geoparke izendatua izan zen. Beste udalerrri mugakide batzuekin batera, flysch-ibilbidea osatzen duten geruza izugarriak daude: itsas-lehorreko ibilbidea da, flyschak eratutako itsaslabar ikusgarriak eta Europako marea-zabalgune handienetakoa dituena.




1. Algorri Interpretazio Zentroa

Urola ibaiaren ahoa, Beduako padurak, Santiagoko dunak, San Migeleko artadia, marea-zabalgunea eta itsaslabarrak. Horiexek dira bertako ekosistemak, eta horien ingurukoa da Algorri Interpretazio Zentroa: erraz eta modu didaktikoan azalduko dizkizu guztiak. Euskal Kostaldeko Geoparkeko baliabide garrantzitsuenetakoa da, non Zumaia natura-ondare guztia uler daitekeen, udalerrri hau mundu-mailako erreferente egiten duten fenomeno geologikoak barne hartuta.

2. Z Kulturgunea

Ignazio Zuloaga margolaria izan zenaren estudioaren hormetan, Eibarko artistaren



Zumaia Turismo Bulegoa

Kantauri plaza, 13
20750 - Zumaia
Tel. 943 14 33 96
turismoa@zumaia.eus
www.zumaia.eus/turismo

Udako informazio-gunea (abuztuan)

Amaia plaza, z/g



artelanez gain, haren bilduma historikoko piezak nahiz hainbat artista garaikideren obrak daude esekita.

3. San Pedro parrokia

XIII. mendeko eliza gotikoa, eraikuntza solidoko eraikina, gotorleku itxuraduna, hirigune historikoaren ipar-ekialdean dagoena. Kanpoko soiltasunaren eta barrualdearen arteko kontrastea nabarmentzen da; izan ere, kanpoaldean, defentsa-izaera eta handitasuna gailentzen zaizkio dekorazio-balioari, eta, barrualdean, nabe bakarreko espazio gotikoa beha daiteke, Euskadiko ederrenetako bat. Barrualdean, Juan de Antxietaeren erretaula azpimarratzekoa da,

monumentu nazional izendatutakoa, bai eta Quintin de Torreren Kristoa, botozko taula bat edo alboetako kaperak ere, besteren artean.

4. Artea

Ikus itzazu Mariñelen Kofradia, Arritokietako Andre Mari ermita, San Jose komentua, San Telmo ermita, Oikiako San Bartolome eliza, Artadiko San Migel eliza, Santiagoko ermita, jauregiak eta dorretxeak. Eskaintza hoberik egin daiteke?



Gozatu
gure

Top 10

Pentsa ezazu zure une garrantzitsuetan. Begira iezaiozu ondo gorderik duzun horri. Brindis hura, iluntze magiko hura, mokadutxo haren zapore berezia, usain nahastezin hori. Benetan axola duten une zoragarrien maleta handi hori betetzen jarrai dezazula nahi dugu.

Familiarekin batera toki zoragarriak aurkitu zenituen uneez ari gara, edota plater gozoak dastatu, barre egin eta bizitza partekatu zenuen une horietaz. Lagunekin pintxotan ibiltze hutsa gidoi idatzirik gabeko abentura bihurtzen zen une horiei buruz. Berriro ere jatorriekin, benetakoarekin, topo egiten zenuen uneez.



02

Top 10

01 Filmetako eszenatokia

02 Gozamen hutsa

03 Sekulako istorioak dauzkaten herri arrantzaleak

04 Modaren jenio baten ondarea

05 Gure nortasuna: pintxoak, parrila, txakolina...

06 Naturaren eta giza jardueraren arteko oreka

07 5 kilometro eskasek lotzen dute Zarautz Getariarekin, edo alderantziz

08 "Getariako arratoia", itsasoaren gainean

09 Mahastietako ilara berdeen harmonia, itsasoaren ondoan

10 Jatorrietara itzuli Aiako hirigune historikoan

Top 10



01

Filmetako eszenatokia

San Telmo ermita, Euskal Kostaldeko Geoparkeko flyschak osatzen dituen itsaslabarren gainean.

Zumaia

02

Gozamen hutsa

Bi kilometro malekoi, Kantauri itsasoaren aurrean paseatzeko.

Zarautz



03

Sekulako istorioak dauzkaten herri arrantzaleak

Kale harriztatuak,
arrain-parrilen usaina...
Getaria eta Orio



04

Modaren jenio baten ondarea

Cristóbal Balenciaga
Museoa.
Getaria

05

Gure nortasuna: pintxoak, parrila, txakolina...

Gure itsasoko eta lurreko
onena, sukaldean.



Top 10

06

Naturaren eta giza jardueraren arteko oreka

Pagoetako natura-parkea itsasotik bederatzi kilometro baino gutxiagora dago.

Aia



07

5 kilometro eskasek lotzen dute Zarautz Getariarekin, edo alderantziz.

Bideak itsasoaren ondoan, edo txakolin-mahastien artean.

Zarautz eta Getaria





08

**“Getariako arratoia”,
itsasoaren gainean**

Argazki bilatuena.
Getaria



09

**Mahastietako ilara berdeen harmonia,
itsasoaren ondoan.**

Txakolina egiteko paisaiak.
Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia

10

**Jatorrietara itzuli
Aiako hirigune historikoan**
Euskal landa-tradizio historikoa.

Aia





Tokiko produk parecyabean



03

Gastronomia

Euskal gastronomia mundu-mailan da ezaguna, eta bere tradizio eta berrikuntzarengatik goosten da. Hala ere, margolan handietan bezalaxe, xehetasunei arretaz begiratzea da onena. Gurea, Urola Kostakoa, oso berezia da, kostaldearen eragin handia baitauka; horregatik esaten diogu “Kosta Gastronomikoa”. Gastronomia horretan, amaierako produktuek sortzaileekin partekatzen dute protagonismoa, bai eta hazten ikusten dituen paisaiarekin eta lantzen eta sukaldean prestatzen dituztenen eskuekin ere.

Kosta Gastronomikoaren ezinbesteko bost osagaiak aurkeztuko dizkizugu, horien berri eduki eta banan-banan goza ditzazun. Getariako Txakolina jatorrideitura duen txakolinaren txinparta, parrilan Orio estilora egindako bisiguaren

zaporea, Zarauzko azokan aurki ditzakezun baratzekeo barazkiak, Aiako ardiengazta eta Zumaiako flyscheko olagarroa.

Parrila da gure enbaxadorea. Txingarra, sua, beroa, ikatzaren txinparta, gure portuetako arrainek jariatzen duten lurrin zaporetsua eta bertan prestatzen diren haragiak. Adituak gara jaki horiek egiteko puntu zehatzak ezagutzeko orduan, eta kalean bertan erakusten dizugu. Jatetxeen kanpoaldean pizten baitira gure parrilak, bazkalorduan eta afalorduan. Izugarria da horiek ikustera hurbiltzea, txingarren profesionalekin sukaldeko aholkuak partekatzea, eta, azkenik, gure plateren zapore berezi hori dastatzea. Antzinatek gordetzen dugun zaporea da, eta goren mailako sukaldaritzaren eskarmentua gaineratu diogu.

Goza ezazu gure...



Kosta Gastronomia



Aia



Aia, natura eta gazta

Bisita eta gazta dastaketa: 12 €
ORORTEGI · Tel. 656 773 368



Txotx eta menua

**Bisita + txotx + aperitiboa +
sagardotegi menua: 36 €**
SATXOTA · Tel. 943 83 57 38



Poteoa Aiako tabernetan

Gazta errazioa + txakolin potea: 5 €
Gazta errazioa + sagardo potea: 4 €
ARRUTI / AIZE BERRI



Bertako produktuen txokoa

Produktuen salmenta
COOPERATIVA EROSKI · *Sartalde kalea*
Astelehenetik igandera: goizez.



Txakolinaren txinparta

**Bisita + txakolina eta bertako
produktuen dastaketa: 15 €**
ZUDUGARAI · Tel. 658 750 162

Getaria



Txakolinaren txinparta

Bisita + txakolina eta bertako produktuen dastaketa: 16 €

AKARREGI TXIKI / ELKANO / GAINZA

Informazioa eta erreserbak: Tel. 943 14 09 57



Itsas esperientzia

Bisita + antxoa, hegaluzea eta txakolin dastaketa: 22 €

MAISOR

Informazioa eta erreserbak: Tel. 943 14 09 57



"Basqueporks"

ESPERIENTZIA

Bisita + hestebete eta sagardo/txakolin dastaketa: 15 €

EZKURTERRI

Informazioa eta erreserbak: Tel. 943 14 09 57

Orio



🐟 Bisigua "Orio estilora"

Bisiguaren "master class" a Orioko erretegi ospetsuenetako batzuetan: bisigu dastaketa + aperitiboa + txakolina: 35 €

ORIOKO BARRA / XIXARIO

Informazioa eta erreserbak: Tel. 943 83 55 65

Zarauzko



Zarauzko merkatua

Merkatuko ordutegian, bisita librea.

*Astelehenetik ostiralera:
goiz eta arratsalde.
Larunbatetan: goizez.*



Txotx esperientzia

Bisita + txotx + aperitiboa: 10 €

ARIZIA

*Informazioa eta erreserbak:
Tel. 943 10 04 89*



Txakolinaren txinparta familian

**Bisita familian + txakolina
(helduentzat) eta bertako produktuen
dastaketa: 15 € / 6 € haurrek**

TALAI BERRI

*Informazioa eta erreserbak:
Tel. 943 13 27 50*



Lagun artean

**Poteoa kuadrillan, Zarauzko historia,
anekdotak, eta dastaketa edari eta
pintxoekin: 25 €**

EUSKALDUNA / TXIKI POLIT / LUKAS

*Informazioa eta erreserbak:
Tel. 618 775 820*

Zumaia



Flyscheko olagarroa

**Flyscheko olagarroaren urratsei
jarraituz + olagarro pintxo +
txakolina: 15 €**

Informazioa eta erreserbak:
www.geoparkea.eus
Tel. 943 14 33 96



Euskararen enigma

**Euskaldunon sekretuak +
txakolina eta atun dastaketa
Elkarte Gastronomikoan: 15 €**

Informazioa eta erreserbak:
www.geoparkea.eus
Tel. 943 14 33 96




Euskal baserriaren sekretoak

**Benetako euskal baserri bat bisitatu
eta bertako bizilagunak ezagutu +
sagardoa eta gazta dastaketa: 10 €**

Informazioa eta erreserbak:
Tel. 943 14 33 96



Sentseviz atsegina



O k

04

Natura

Itsaslabarrak, hondartza lasaiak eta mendiak bizikide dira gure lurraldean. Euskadiren berdetasunak eta Kantauri itsasoaren urdintasunak markatzen duten eremua da, naturarekin bizi-bizi komunikatzeko deia egiten dizuna.

Badakigu balio handiko natura dugula, eta zaindu egiten dugu, sentitu eta zurekin partekatu ahal izateko. Euskal Kostaldeko Geoparkea, Deba eta Zumaiako arteko kostaldeko biotopoa, Zarauzko Iñurritza biotopoa (bere padura, itsaslabar eta dunekin), Pagoetako

natura-parkea eta Zumaiako dunak horren adibidea dira. Bizi ezazu bertako bideetan oinez, zaldiz, edo surf-taulara igota...

Inguratzen gaituen paisaiak bertatik ibiltzeko gonbita ere egiten digu. Edota noraezean ibiltzera edo adierazita dauden bidezidorretatik pasiatzera bultzatzen ("UROLA KOSTAKO IBILBIDEAK" gida espezifikoan begiratu ditzakezu horiek). Urrats bakoitzean aurki dezazun zeure burua, edo naturaren handitasuna egiaztatu, era askotako familia-ibilaldietan.

Parke
Naturala

Pagoeta



1998tik, natura-parkearen izendapena dauka, eta natura-balio handia duela erakusten du horrek.

Zerurainoko mugak ditu **Urruztumeko eta Pagoetako gailurrak**, bertako lurretik elikatzen dira pagadiak, haginak eta gorostiak,

eta aterpea ematen dio Altzolaras bailarari. Baso autoktonoak, **burdinolen eta erroten** kultura-ondare aberatsarekin batera. Iturraran baserria da parkea ezagutzeko eta ibilbideak egiteko abiapuntua.

Info+: www.aiapagoeta.com



Iturraran Interpretazio Zentroa

Ordutegia

Irailetik uztailaren 2. astera arte:

- Asteartetik igandera eta jaiegunetan: 10:00 - 14:00
- Urtarrilean: asteburuetan bakarrik: 10:00-14:00
- Itxita: abenduaren 16tik urtarrilaren 11 arte

Uztaila eta abuztua:

- Asteartetik ostiralera: 10:00 - 14:00 eta 16:30 - 18:30
- Larunbat, igande eta jaiegunetan: 10:00 - 14:00
- Herriko jaiak direla-eta abuztuaren 10ean itxita egongo da

Tel. 943 83 53 89

iturraran@gipuzkoa.net / iturraran@gipuzkoamendizmendi.net
www.aiapagoeta.com / www.gipuzkoamendizmendi.net

Agorregi burdinola eta errotak

Ordutegia

Burdinola eta errotak ikusteko bisita gidatua
11:30ean izango da beti.

Martxotik ekainera:

- Igande eta jai-egunak: 11:00 - 13:00

Uztaila eta iraila:

- Larunbata, igande eta jaiegunak: 11:00 - 13:00

Abuztua:

- Ostegunetik igandera: 11:00 - 13:00
- Herriko jaiak direla-eta abuztuaren 10ean itxita egongo da.



Euskal Kostaldeko
Geoparkea

Flyscha eta karsta



Fenomeno geologiko ugari dituen lurraldea da, eta, horri esker, **UNESCOren ondareen mapan eta zerrendan** dago toki hau. Lastur eta Olatz bailaren paisaia karstikoez gain, **Lurraren historiaren 60 milioi urtetik gora eskaintzen dizkigu kostaldeak 13 kilometrotan**, itsaslabar ikusgarriak eta guzti. Bertara iritsi arte, zaila da esaten ari garen hori irudikatzea, baina bai, ahozaba-

lik geratuko zara paisaiaren handitasunaren eta paisaia horrek atzean ezkutatzen duen historiaren aurrean. Bidetik edo itsasontzitik, bizitzaren liburuko sekretuak gordetzen dituzten eraketa geologiko ikusgarriak (karsta eta flyscha) eta fosilak ikusiko dituzu. Bertaratu ahala, sekretuak argitzen joango zara.

Info+ eta erreserbak: www.geoparkea.eus

Biotopoa

Iñurritza



Talaimendi mendia, Zarauzko hondartza (Euskadiko zabalena) eta Zarauzko Real Golf Kluba dira Iñurritza biotopoko protagonista.

Itsaslabar, padura eta dunak... natura bete-betean. Natura eta gizakion jarduerara orpoz orpo, naturaz gozatzeko, baina natura hori babestuz.

Dunetatik ibil zaitezke, ia kilometro bat duen egurrezko pasabide irisgarrian. Hemen, askotariko beharrak dituzten flora- eta fauna-espezieak elkartzen dira, komunitate berezitu eta elkarri lotutakoen mosaikoa sortuz. Horrek guzti horrek egiten du paisaia bereziki erakargarria.
Info+: www.turismozarautz.eus

Mugitu zaitez naturan

	Aia	Getaria	Orio	Zarautz
	<p>Agorregi zalditegia Olaresa, agorregiko.burdinola Tel. 650 870 966 - mgueilliarre@euskalnet.net</p> <p>Kanpoko igerilekuak Tel. 943 131 144</p>	<p>Charter Probanza Iteerak kirol-portuik Tel. 665 724 870 - www.probanza.es</p> <p>Gaztetape surf-elkartea Gaztetape hondarza Tel. 615 761 264 - gaztetapesurf@hotmail.com</p> <p>Kostabela kirol-elkartea Hegoaldeko katea, z.g (kirol-portua) Tel. 681 671 606 - bulegoa@kostabela.com</p> <p>Ksub Txoritonne-kalea, 34-35 (Getariako portua) Tel. 943 140 185 - ksub@ksub.net - www.ksub.net</p> <p>Sahatsaga kiroldegia Sahatsaga Ibilbidea, 13 - Tel. 943 140 432</p>	<p>Arraunetxe begi-bistan Geltoki kalea, 2/8 - Tel. 657 794 677 www.begi-bistan.com - info@begi-bistan.com</p> <p>Hotel & Thalasso Villa Antilla. Hondarza Bidea, 1 Tel. 943 832 104 - reservas@villiantilla.com www.villiantilla.com</p> <p>Karela Kiroldegia Eribera, 1 - Tel. 943 894 428</p> <p>2Gurpil, Iturrilun plaza - Tel. 943 833 59 80 2gurpil@gmail.com - www.2gurpil.com</p>	<p>Alitan Aitzabalde plaza, 2, behea - Tel. 943 132 647 alitan-sub@alitan-surf.com - www.alitan-sub.com</p> <p>Arazi, Bizkaia kalea, 11 - Tel. 943 833 641 arazi@arazi-ikt.com - www.arazi-ikt.com</p> <p>Aritzabalde kiroldegia Araba kalea, 20 - Tel. 943 005123</p> <p>Axi Muniain surf-eskola, Nafarroa kalea, 2 Tel. 943 835 648 - 655 721 240 axisurfscnool@gmail.com - www.axisurfskola.com</p> <p>ESSUS surf-eskola Torreluzea, 2 - Tel. 943 835 024 essusenda@gmail.com - www.essusurf.com</p> <p>eXperientziak "bizi zurea" Oleja Landa - Tel. 618 775 820</p> <p>eXperientziak "Gela Urdina (Escape room)" Oleja Landa - Tel. 618 775 820</p>
Surfa		●		●●
Bodyboarda		●		●●
Supa			●●	●●
Skatea				
Kayakak			●●	
Uretako motoak				
Zetazeoak				
Flyboarda				
Eskalada	●		●	●
BTTa				
Slack linea				
Bela		●	●	
Igeriketa	●		●	●
Golfa				
Nordic Walkinga	●		●	
Zaldi-irteerak	●			
Urpekaritza			●	
Paintballa				
Bizikleta-alokairua				●
Mendi-ibiliak			●	
Bizipenak				●
Ibilbideak			●	
Bisita gidatuak				●
SPA			●	●
Itsasontzi-irteerak	●			

Ibilbideak, zeure kasa



Urdina eta berdea bat eginda. Gozatu, familia-giroan, jarraian gomendatzen

dizkizugun ibilbideez eta ikusi, bertatik bertara, eskualdeko txakolin-tradizioa.

01

Txakolinaren ibilbidea (PR GI-202)

Ibilbide biribil honek barrualdeko auzo eta herriekin (hala nola, Urdaneta eta Aizarnazabalekin) lotzen ditu Zumaia, Getaria eta Zarautz.

Horien artean, edozein herri hauta dezakezu ibilbideari ekiteko, eta nahi duzun norabideari jarrai diezaiokezu. Ibil zaitez larreen, basoen eta mahasti txikien artean.

Barrualderantz egin ahala, altuago egongo zara, eta auzo ederretatik (Elkano eta Urdanetatik, adibidez) igaroko zara.

Bidezidorrak, era berean, Urola ibaiaren ertzetara eramango zaitu.

02


Talai ibilbidea (GR 121): Orio-Zumaia

Hondarribia eta Mutrikuko Saturraran hondartza lotzen dituen GR ibilbide luzearen zati honek, balea-arrantzaleen antzinako zaintza-talaiak zeharkatzen ditu; hortik datorkio izena ibilbideari. Itsasoari begira egiten den ibilbide honetan, Zarauzko Iñurritza biotopoa eta Euskal Kostaldeko Geoparkea gurutzatzen dira, baita hainbat hondartza, kala, gotorleku, herri eta auzo ere. Azken batean, gure eskualdeko natura eta kultura ezagutzeko aukera aparta eskaintzen dizu.

03

San Anton

San Anton mendia natura-parkea da berez, eta landare eta zuhaitz autoktonoen nahiz exotikoen barietate ugari dauzka. Ezin hobea da pasieran ibiltzeko, itsasorako ikuspegiez gozatzeko eta mendi horretako bazter guzti-guztiak miatzeko. Gailurrerantz ibiliz, faroa topatuko duzu. Han, ermita bat kokatu zuten aspaldi, baina soldadu frantsesek suntsitu zuten, 1813an atzera egin zutenean. Bestalde, sekulako talaia dago. Handik, baleak ote zeuden edo enbata-arriskua ote zegoen begiratzen zuten. Goi-goian, euskal kostaldearen ikuspegi zoragarria edukitzea ahalbidetuko dizu "Katxopo" ezizena duen eraikuntzak.





04

Sustrai (PR GI-201)

Zarauztik abiatuz gero, bidea San Pelaio arroarekin paralelo doa, ibai-ahora iritsi arte. Iñurritza biotopo babestua inguratuko duzu, Tailamendirantz igotzen jarraitzeko. Hortik, Orioko Oribarzar hondartza lasairantz jaisten da bidea. Hainbat modutan egin dezakezu ibilbidea, bai egitura biribila duelako, bai Zarauzko, Orioko eta Aiako biztanleguneekin, kostarekin eta Pagoetako natura-parkearekin komunikatuta dagoelako. Hiru irteera- eta iritsiera-gune (Zarauz, Orio eta Aia) dauzka bideak. 12 kilometroko ibilbidea da, naturaz inguratutako paisaia paregabean.

05

Lusarbe-Kukuarri (PR GI-159)

Ibilbide hau Lusarbeco jolas-eremutik abiatzen da, Igeldo-Orio errepidearen ondotik. Udalerriko zonalde garaienetik igarotzen da bidezidor hau, eta, bertan, kostaldearen, Orio ibaiaren ahoaren eta Gipuzkoako barnealdearen ikuspegi berdingabeez gozatu ahalko duzu. Bestetik, auzolanean eraikitako bideak zeharkatzen dira. Inguruko baserritarren komunitate-lana zen auzolana, ongizate orokorrari zuzendutako obrak egiteari begirakoa. Kukuarriko gailurra begiratoki aparta da; ikuspegi bikainak ditu.

06

Pagoetako gurutzea (PR GI-4002)

Aiaren atzeko aldetik igarotzen da ibilbide osoa, Urdaneta auzotik udalerrriaren erdialderaino. Ibilbide honetan, egundoko paisaiez eta altxor natural zein historikoez gozatu ahalko duzu. Bestetik, Sarobeberriko haitzak eta Arreta izeneko bi tumuluak aurkituko dituzu. Tumuluak gailur-lerroetan, mendi-lepoetan edo, bestela, mendi-hegalen erdialdeko goi-lautada edo muinonetan egon ohi dira. Tumuluak hilobi-ganberarik gabeko ehorzlekuak dira, pilatutako harriez eginak. Gainera, familiako edo lagunarteko argazki hori ateratzeko paisaia ezin hobez gozatuko duzu Pagoetako gailurreko gurutzean, itsasoaren mailatik 678 metrora. Ekaineko lehenengo igandean, erromeria egiten da bertako zelaietan. Inguruko arrantzaleek Pagoetako gurutzeari begiratzen zioten, erreferentzia gisa eta eguraldia iragartzeko.

07

Orio-Itxaspe (PR GI-158)

Ibilbide hau Orioko hirigune historikotik abiatzen da, eta Tailamendiren mendi-hegala Orioko itsas aurreraino inguratzen duen bidea baliatzen du. Bidezidorraren zati handiena pista izateko egokituta dago, eta Itxaspe baserriraino iristen da; baserri hori da udalerrian itsaso aurrean egoteko pribilegioa duen bakarra. Ohiko ibilbidea da, paisaia mota asko eta zailtasun-gabezia konbinatzen baititu, malda txikia edukitzeaz gain. Oso aproposa da familia- edo lagun-giroan egiteko. Bidean, hainbat begiratoki aurkituko ditugu, aspaldi arrantzarako eta defentsarako erabiltzen zirenak.

Eskuoihala sorbaldan edo hamaika tramankulu soinean; hemen dituzu gure hondartzak, ondoen datorkizuna aukera dezazun. Goza itzazu!

Hondartzak



Getaria Gaztetape hondartza

Gozatu Getariako arratoiak. San Anton mendiaren mendebaldean, Getariako arratoi ezagunaren azpian, Kantauri itsasoari begira dagoen hondartza txiki hau dago.



Malkorbe hondartza

